



*Castildetierra
Errege-Bardeen Parke Naturala
Iturria: Nafarroako Turismoa
Egilea: Francis Vaquero*

H DBH2

2023/2024

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

**Euskarazko
Hizkuntza-
gaitasuna**

DBHko 2. maila



Jarraibideak

Proba bat egingo duzu, bi zati dituen.

1. zatia - Irakurmena

Atal honetan hiru testu irakurriko dituzu:

- *Untxi-gordelekuan behera.*
- *Komunikazioa.*
- *Pirinioetako. V. Mikroipuin lehiaketa.*

Irakurri duzunari buruzko galderei erantzun beharko diezu. **Hainbat motatako** galderak aurkituko dituzu:

- Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan **zuzena** dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

<p>Zenbat biztanle ditu Iruñeak?</p> <p>A. Bartzelonak bezainbat.</p> <p><input checked="" type="radio"/> B. 200 000, gutxi gorabehera.</p> <p>C. Milioi bat.</p> <p>D. Zenbait milioi.</p>
--

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu X batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

<p>Zenbat biztanle ditu Iruñeak?</p> <p>A. Bartzelonak bezainbat.</p> <p><input checked="" type="radio"/> B. 200 000, gutxi gorabehera.</p> <p>C. Milioi bat.</p> <p><input checked="" type="radio"/> D. Zenbait milioi.</p>

- Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea, ideaiak erlazionatzea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

<p>Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?.....</p>

2. zatia – Idazmena

Zati honetan azkeneko irakurgaiarekin nolabaiteko erlazioa izengo duen testua idatzi beharko duzu. Irakurri arretaz jarraibideak. Zirriborroa egitea derrigorrezkoa da.



Proba hau egiteko 70 minutu dituzu.



I. KAPITULUA. *Untxi-gordelekuan behera*

Alizia nekatzen hasia zen ibaiertzean bere ahizparen ondoan eserita eta zereginik gabe egoteaz. Behin edo birritan begiratu zion ahizpa irakurtzen ari zen liburuari, eta irudi edo elkarrizketarik ez zeukala ikusirik, pentsatu zuen: “Zertarako balio du liburu batek irudi eta elkarrizketarik ez badauka?”.

Hala kontuak, pentsatzen ari zen ea merezi zuen bitxiloreak biltzen hasteko nekea hartzea, gero haiekin txirikorda bat pozarren egiteko, eta hara non, ezustean, ondotik begi arrosadun Untxi Zuri bat lasterka igaro zitzaion.

Hain gauza bitxia ere ez zen hura; eta Aliziari ez zitzaion hain bitxia ere iruditu Untxiaren bakarriketatik hitz hauek entzutea:

—Ai, ene! Ai, ene! Zein berandu iritsiko naizen!

Hala ere, Untxiak barneko sakelatik erloju bat atera, ordua begiratu eta presaka alde egin zuenean, Alizia jauzi batez altxatu zen, une hartan konturatu baitzen inoiz ez zuela ikusi barneko sakela zeukan eta, are gutxiago, handik erloju bat ateratzen zuen untxirik. Eta, jakin-minaren jakin-minez, haren atzetik abiatu zen landan zehar, lasterka, eta garaiz iritsi zen hura landarehesiaren azpian zegoen untxi-gordeleku handi batean desagertzen ikusteko.

Istantean, Alizia untxiaren atzetik joan zen, gero handik nola demontre aterako zen pentsatu ere egin gabe.

Hasierako zatian, untxi-gordelekua tunel baten modukoa zen, eta gero bat-batean amiltzen zen beherantz, benetan bat-batean. Izan ere, Aliziak une bakar batez ere ez zuen aukerarik izan nola gelditu zitekeen pentsatzeko, ordurako putzu sakon moduko batean erortzen ari baitzen.

Edo putzua oso sakona zen, edo oso poliki erortzen ari zen, behera bidean Aliziak aski denbora izan baitzuen ingurumariari begiratu eta bere buruari galdetzeko ea segidan zer gertatuko zitzaion. Lehenbizi, behera begiratzen eta nora zihoan jakiten saiatu zen, baina ilunegi zegoen ezer ikusi ahal izateko. Gero, putzuko paretetara begiratu zuen, eta konturatu zen ontziz eta liburuetarako apalategiz beteta zeudela; han-hemenka, mapak eta margolanak zeuden gakoetatik zintzilik. Bidean, pote bat hartu zuen apal batetik. Etiketan “LARANJA-MARMELADA” zioen, baina nahigabe handia hartu zuen hutsik zegoela ikustean; ez zuen bota nahi izan, beheko norbait hiltzeko beldurrez, eta erorialdian topatu zuen beste apal batean uzteko moldatu zen.

“Tira!”, pentsatu zuen Aliziak berekiko. “Hau bezalako erorketa baten ondoren, bost axola niri eskaileretan behera bilinbolaka joatea! Etxekoek oso adoretua naizela pentsatuko dute! Etxeko teilatutik erorita ere, ez nuke hitzik esango!”

Behera, behera, behera. Erorialdia ez zen inoiz bukatuko?

—Dagoeneko zenbat kilometro egin ditudan jakin nahi nuke —esan zuen ozenki—. Lurraren zentrorra iristen ibiliko naiz, hor nonbait. Ea horrek bost mila eta bostehun kilometro egingo lukeela uste dut...(…)

—... baina zein herrialdetan nagoen galdetu beharko diet, noski. Andrea, arren, hau Zeelanda Berria da ala Australia?

Eta, hori esaten ari zela, buru-makurtze bat egiten saiatu zen... pentsa, erortzen ari zarela erreberentzia bat egitea! **Hori egiteko gauza izango zinateke zu?**

—Eta andreak oso neska ezjakina naizela pentsatuko luke! Ez, hobe dut ez galdetzea; beharbada idatzita ikusiko dut tokiren batean.

Behera, behera, behera. Beste zereginik ez zegoenez, Alizia berehala hasi zen berriro hitz egiten.

—Uste dut Mixak nire falta sumatuko duela iluntzean! —Mixa katua zen—. Espero dut norbaitek askaltzeko esne-platertxoak ipintzea. Ene Mixa maitea! Hemen behean nirekin egongo ahal zinen! Zoritxarrez, airean ez dago sagurik, baina saguzar bat harrapa zenezake, sagu baten oso antzekoa dena. Baina ez dakit katuek saguzarrak jaten ote dituzten.

Eta une hartan Alizia loguratuta sentitzen hasi zen, eta, ametsetan bezala, bere buruarentzat jarraitu zuen esaten:

—Katuek saguzarrak jaten dituzte? Katuek saguzarrak jaten dituzte? Eta, batzuetan: Saguzarrek katuak jaten dituzte? —Zeren, bistan denez, galderen erantzunik ez zekienez, berdin baitzion alde batera zein bestera egiteak. Lokartzen ari zela sentitu zuen, eta amesten hasi zen Mixaren eskutik helduta zihoala eta seriotasunez galdetzen ziola: “Orain, Mixa, esadazu egia: jan al duzu inoiz saguzar bat?”, eta bat-batean, dinbili-danbala!, adar eta hosto meta baten gainera erori zen. Hantxe amaitu zen neskatoaren jaitsiera.

Aliziak ez zuen batere minik hartu, eta berehala altxatu zen. Gorantz begiratu zuen, baina dena ilunpean zegoen. Aurrean beste igarobide luze bat zeukan, eta Untxi Zuria artean begien bistan zegoen, arrapaladan zihoala. Ez zegoen denbora galtzerik: Alizia **haizea bezain arin** joan zen haren atzetik, eta bihurtu batean desagertu baino lehen hauxe esaten entzun zion:

—Bibote bat eta belarri bi, berandu egiten ari zait niri!

Alizia herrialde miresgarrian, Lewis Carroll (itzultzailea: Manu López Gaseni), Pamiela

(Moldatua)

1. Zein da lehenengo kapituluaren izenburua?

.....

2. Non dago Alizia? Non kokatzen da ipuina?

- A. Itsasoan.
- B. Mendian.
- C. Australian.
- D. Ibaiertzean.

3. Zertan ari zen Alizia Untxi Zuria bat-batean pasatzen ikusi zuenean?

- A. Bere ahizparen liburuari begira ari zen.
- B. Irudirik gabeko liburuei buruz hausnarrean ari zen.
- C. Txirikorda bat egiteko bitxiloreak biltzen ari zen.
- D. Zerbait egitea pentsatzen ari zen.

4. Zerk eman zion atentzioa Aliziarri?

- A. Untxi Zuria bere ondotik lasterka igarotzeak.
- B. Untxi Zuriak barneko sakela izateak.
- C. Untxi Zuria hitz egiteko gai izateak.
- D. Untxi Zuriak begi arrosak edukitzeak.

5. Alizia untxiaren atzetik zihoala, non sartu zen?

.....

6. Ekintzak antolatu (idatzi 1, 2, 3, 4, 5, 6):

	Adar eta hosto meta baten gainera erori zen.
	Behera begiratzen eta nora zihoan jakiten saiatu zen.
	Pote bat hartu zuen apal batetik.
	Putzuko paretetara begiratu zuen.
	Loguratuta sentitu zen.
	Potea apal batean utzi zuen.

7. “Hori egiteko gauza izango zinateke zu?” esaldian, norekin ari da narratzailea?

- A. Aliziarekin.
- B. Untxi Zuriarekin.
- C. Irakurlearekin.
- D. Antipatikoekin.

8. Zein da testuan agertzen den “haizea bezain arin” esamoldearen baliokidea?

- A. Ilunpean.
- B. Begien bistan.
- C. Bihurgune batean.
- D. Arrapaladan.

9. Irakurritako testuaren zatirik luzeena, Alizia....

- A. ... untxiaren atzetik abiatzen denean gertatzen da.
- B. ... putzu sakon batean erortzen den bitartean gertatzen da.
- C. ... untxi-gordelekua igarotzen duen bitartean gertatzen da.
- D. ... liburu bat irakurtzen ari den bitartean gertatzen da.

Lehenengo testuko galderen amaiera

Irakur itzazu hiru testu hauek (SEGAPOTO, TXINAKO EMAKUMEA eta SILABA BATENGATIK) eta erantzun galderei.



[Hasiera](#) >> [Albisteak](#) >> Segapoto

SEGAPOTO

Segapoto bertsolaritza mundura zuzenduta dagoen aplikazioa da. Lasai, ez dago-eta zertan trebea izan; aplikazioak berak lagunduko dizu bertsoak osatzen. Horretarako, sinonimo eta errimen bilatzailea, baita silaba eta errima zuzentzailea ere baditu. Lerro bakoitzeko silaba kopurua egokia denean, aplikazioan agertzen den eskuineko irudia aldatu egingo da, egokitasuna adieraziz. Gainera, neurria aukeratu ostean, hari dagozkion doinu batzuk entzun daitezke laguntza bezala.

Segapoto Ion Lizarazu gazte gipuzkoarraren karrera amaierako proiektua da.

(Moldatua)

ORAIN DELA 400 URTE TXINAKO EMAKUMEEK HIZKUNTZA BAT ASMATU ZUTEN EUREN ARTEAN SOILIK HITZ EGITEKO

Irudikatu XVII. mendean Txinan bizi den emakumea zarela. Urrunean isolatuta dagoen landa ingurunean bizi zara, haurtzarotik hankak lotuta izan dituzu etxekoa ez den beste inorekin ez erlazionatzeko. Zure gelan igarotzen dituzu orduak, ohikoak diren jarduerak egiten, hau da, josten edo kozinatzen. Ez zara eskolara joan eta ez da erraza beste emakumeekin komunikatzea, are gutxiago elkarrizketa pribatu bat izatea. Egoera honetan, zer egingo zenuke zuk? Beraiek hizkuntza sekretu bat asmatu zuten.

Hizkuntza hau eskuinetik ezkerrera irakurtzen da eta lau dialektoren arteko nahasketa da. Sinbolo bidez idazten da eta sinbolo bakoitzak silaba bat ordezkutzen du. Sinboloz osatutako hitzek eta esaldiek osatzen dute hizkuntza hau. Banbu punta zorrotzak eta tinta inprobisatua erabili zituzten hizkuntza ezkutu hau idazteko. Benetan harrigarria!

Gaztezulo, 14/12/2021.

Silaba batengatik

Kantu bat idaztean
hon-dar-tza-ra joaten naiz men-di-ra joan nahi izan arren
mai-ta-tu esaten dut mai-te beharrean
nahiago dut a-la-ba bat, se-me bat baino,
edo Gas-teiz-en ordeztu Bil-bon egon naiteke
eta mu-ga-ga-be-ko baino in-fi-ni-tu erabiltzen dut.

Au-rre-ra esaldiaren atzean jartzen dut
eta na-hi-a-go esaten dut, hasieran nahi ez banuen ere.
Su-a bihurtzen dut pa-si-o
eta kan-ta a-bes-ti.

Silaba batengatik
laba batengatik
su
mendi
edo sumendi.

Jon Maia, *Kantu bat gara* liburutik (egokitua)

10. Nor da Ion Lizarazu?

.....

11. Norentzat egin da aplikazioa?

- A. Bertsozale ez denarentzat.
- B. Trebeentzat.
- C. Zuzentzaileentzat.
- D. Bertsozaleentzat.

12. Noiz aldatuko da aplikazioaren eskuineko irudia?

- A. Egokitasunez jokatzen duenean.
- B. Lerro bakoitzeko neurria aproposa denean.
- C. Lerro bakoitzeko errima zuzena denean.
- D. Doinuak entzuteko prest daudenean.

13. Zergatik asmatu zuten Txinako emakumeek hizkuntza sekretu bat?

- A. Isolatuta bizi zirelako.
- B. Lotuta uzten zituztelako.
- C. Eskolan hitz egitea debekatuta zegoelako.
- D. Beste zereginik ez zutelako.

14. Hizkuntza idatzi hau nola irudikatzen da?

- A. Adarrez.
- B. Hitzez.
- C. Sinboloz.
- D. Silabez.

15. Zein da azkeneko testu honetako aditzen subjektua?

- A. Zu.
- B. Ni.
- C. Gu.
- D. Hi.

16. Hitzen arteko marrak zer irudikatzen du?

.....

17. Egileak zertarako bereizten ditu hitz batzuen silabak?

- A. Poema honetan neurri zuzena lortzeko.
- B. Poemak osatzean silabek duten garrantziaz ohartzeko.
- C. Bertso bukaeran errima lortzeko.
- D. Poeman hitzek duten garrantziaz ohartzeko.

18. Baieztapen hauek egia ala gezurra diren esan:

	E	G
A. Hiru testuetan errima garrantzitsua da.		
B. Hiru testuetan silaba hitz gakoa da.		
C. Hiru testuek bertsoekin zerikusia dute.		
D. Silabak eta sinboloak daude hiru testuetan.		
E. Hiru testuek sormenarekin nolabaiteko erlazioa badute.		

19. Zein da zuzena?

- A. Elkarren ondoan dauden hiru albiste dira.
- B. Hiru zatitan banatutako artikulua da.
- C. Elkarren ondoan dauden hiru testu desberdin dira.
- D. Gai bera duten hiru testu dira.

Bigarrenko testuko galderen amaiera.



BALDINTZAK

1. Egileak eta lanak

- Egileak 16 urtetik gorakoak izanen dira.
- Gaia libre da.
- Mikroipuina euskaraz idatziko da.
- Jatorrizkoa eta argitaratu gabea izanen da.
- Mikroipuinak, gehienez ere, 100 hitz izanen ditu.
- Egile bakoitzak ezin izanen du lan bat baino gehiago aurkeztu.

2. Kategoriak

1. Modalitate orokorra;
Pirinioetan bizi, erroldatuta egon edo etxea duen orori zuzendua.

2. Euskara ikasleak:
Pirinioetako euskaltegietako ikasleei zuzendua.

3. Non eta nola aurkeztu

Lanak posta elektronikoko bidez igorriko dira helbide honetara:

pirimikroipuilehiaketa@gmail.com

Mezuak honako informazio hau edukiko du:

1. Postaren izenburua:

Pirinioetako V. Mikroipuin Lehiaketa-Euskara ikasleak ala Pirinioetako V. Mikroipuin Lehiaketa-Orokorra, kasuan kasu.

Antolatzaileak: Artzibar, Auritz, Erroibar, Luzaide, Orreagako udalak; Aezkoa, Erronkariko eta Zaraitzuko ibarretako batzordeak.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua

2. Word formatuko artxiboa, aurkezten den ipuinarekin, ezizen batekin honela izendatuko dena: (EZIZENA)-ipuina. Adib: AUÑAMENDI-ipuina.

3. Word formatuko artxiboa, egilearen datuak jasoko dituen eta ezizen berarekin izendatuko den: (EZIZENA)-egilea. Adib: AUÑAMENDI-egilea. Artxiboan honakoa adieraziko da: egilearen izena, helbidea, NAN zenbakia, e-posta helbidea, telefono zenbakia eta euskaltegiaren izena (ikaslea izanez gero).

4. Epea

Zabalik dago 2023ko apirilaren 5a arte.

5. Epaimahaia:

Honakoek osatuko dute: euskara teknikari batek eta literatura gaietan aditu/zaletu diren bi lagunek.

6. Sariak

1. Orokorra: 1. saria 150€; 2. saria: oparia
2. Euskara ikasleak: 1. saria: 100€; 2. saria: oparia

7. Ebazpena eta sari-banaketa

Sari-banaketa 2023ko maiatzaren 5ean, 18:00etan, Aezkoako etxean (Aribe). Ebazpena aurretik jakinaraziko da.

8. Saritutako lanak Mendixut aldizkarian argitaratuko dira. Aurkeztutako lan guztiekin edizio digital bat egingen da, parte hartzaile guztiei helarazteko.

9. Sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta, epaimahaiaren irizpidearen arabera, idazlanek behar bezalako merezimendurik ez badute.

10. Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar.



 **Nafarroako Gobernua**
Gobierno de Navarra

20. Lehiaketa hau honako hauek antolatzen dute:

- A. Nafarroako Gobernuak.
- B. Pirinioetako euskaltegiek.
- C. Aezkoa ibarrak.
- D. Nafarroako Pirinioetako hainbat udal eta ibarrek.

21. Parte hartu ahal izateko, zeintzuk dira bete beharreko baldintzak?

- A. 16 urte baino gehiago izatea eta Pirinioei buruz idaztea.
- B. Euskaraz idaztea eta lan berria izatea.
- C. Gutxienez 100 hitzetako mikroipuina idaztea.
- D. Gai libreko ahalik eta lan gehien aurkeztea.

22. Zenbat sari banatuko dituzte?

- A. Bat.
- B. Bi.
- C. Hiru.
- D. Lau.

23. Non izanen da sari-banaketa?

- A. Artzibarren.
- B. Erroibarren.
- C. Erronkaribarren.
- D. Aezkoan.

24. Lehiaketan parte hartzeko...

- A. ...mikroipuin bat idatzi ondoren, Aezkoara bidaliko da.
- B. ...mikroipuin batzuk idatzi ondoren, saria jaso daiteke.
- C. ...baldintzetan ematen den posta elektronikora bidaliko da mikroipuina.
- D. ...zure abizenak armari bat eduki behar du.

25. Zer testu mota da hau?

- A. Ipuina.
- B. Albistea.
- C. Jarraibideak.
- D. Dekalogoak.

26. Ondorengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

- A. Lanak benetako izenarekin sinatuta bidali behar dira.
- B. Pertsona batek bi modalitateetan parte har dezake.
- C. Irabazlearen izena 2023ko maiatzaren 5a baino lehen jakingo da.
- D. Epaimahaia bi pertsonak osatzen dute.

2. zatia - Ekoizpen idatzia

27. Produkzio idatzia.

Pirinioetako V. Mikroipuin Lehiaketaren sari banaketa izan da eta egunkarian ospakizun honen berri eman duzu. Helburua: **sari banaketa honen ospakizunaren** berri ematen duen **albiste bat** idaztea.

Idatzi behar duzun testuaren ezaugarriak:

Gaia: Pirinioetako V. Mikroipuin Lehiaketaren sari banaketaren ospakizunaren berri ematea.

- Albistearen egitura (Titularra, Azpitularra eta Gorputza).
- Gertakarien berri eman behar duzu, non, noiz, nork, nor, zergatik (eta sarri nola) galderei erantzunez.
- Gorputza garatzeko galdera **lagungarriak**:
 1. Nork banatu zituen sariak?
 2. Zer sari irabazi zituzten eta nor izan ziren irabazleak?
 3. Ospakizunaren nondik-norakoak. Sari banaketaz gain, zer gehiago egon zen? Zer gertatu zen? Nola amaitu zen ospakizuna?

Ez ahaztu:

- Egunkarian argitaratuko den albistea dela kontuan hartuta, erabili hizkuntza-erregistro egokia.
- Hitz kopurua: 150, gutxi gorabehera.


Kontuan hartu nola sortu behar duzun testua:

1. Pentsatu hasierako planteamendua (derrigorrezkoa).
2. Prestatu zirriborroa (derrigorrezkoa).
3. Idatzi behin betiko testua (derrigorrezkoa).

1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

A large, empty rectangular box with a blue border, intended for writing ideas and initial questions.

2. Zirriborroa:

A very large, empty rectangular box with a blue border, intended for writing a detailed outline.

3. Behin betiko testua:

Titularra

Azpitularra

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Aztertzaileek bete beharreko puntuazio-taula

Atala	Irizpidea	0	0,5	1
PLANGINTZA	1. Ideietarako eta zirriborrarako espazioaren erabilera egokia.			
	2. Aurkezpena.			
ZUZENTASUNA	3. Ortografia (gehienez, puntu 1; gutxienez, 0 puntu). ▪ Ortografia-falta bakoitzeko 0,2ko deskontua.			
	4. Zuzentasun gramatikala.			
EGOKITASUNA eta KOHERENTZIA	5. Egokitasuna: ▪ Eskatzen den informazioa transmititzen du. ▪ Erregistroa. *Testua 12 lerro edo 120 hitzetara iristen ez bada, ez da atal hau baloratuko.			
	6. Eskatutako baldintza: ▪ Hiru zatiak osatu ditu.			
	7. Hiztegi- aberastasuna.			
	8. Informazioaren progresio egokia: testu zentzuduna eta ondo egituratua. *Testua 12 lerro edo 120 hitzetara iristen ez bada, ez da atal hau baloratuko.			
KOHESIOA	9. Lotura eta kohesio mekanismoak.			
	10. Puntuazio (gehienez, 1 puntu; gutxienez, 0 puntu). ▪ -0,2 puntuak oker erabiltzeagatik. ▪ -0,1 komak, puntu eta komak edo bi puntuak oker erabiltzeagatik.			

Itena 27 – Guztira:

/10